

LABURAEAN

BASAURI

Basauritik Bielorrusiara anbulantzia bi bialdu ditue, hango bizilagunei laguntasuna emoteko

Bielorrusiako umeak hartze-ko alkartearen bitartez (ACOBİ), generoz betetako anbulantzia bi bialdu ditue Bielorrusiara. Aranegun urten eben, Basauritik, eta 3.700 kilometro egin behar-ko ditue bidean, 26 bat egun. Bielorrusiako Kliimovitxi al-dera doaz, eta hainbat erata-ko generoa eroateaz ganera, hango familiakaz be alkartu-ko dira, euren umeak bolada baten Euskal Herrira bialdu gura baditue horren barri euki daien. ACOBİ alkarteaz batera, Aldundiak, eta Basauriko, Arrigorriagako eta Bakioko udalek eta hainbat enpresek hartu dabe parte kanpainan.

BARAKALDO

Eguenetako merkatua Ansioko landan egingo da, pare bat hilabetetik aurrera

Eguenetako merkatua Elkar-tegiren alboan egingo dabe datozan hilabete biotan, bai-na gero, Ansioko landan egingo dabala esan dau Je-sus Maria Gonzalez Suance-sek. Barakaldoko Udaleko Herri Lan eta Zerbitzuetako ordezkaria da bera. Kaleko merkatariek azoka Elkartegi albotik aldatzeko eskatu izan dabe, leku hori herritarren-tzat urrintxo geratzen dala-ko.

Sinvisak garbituko ditu herriko ikastetxe eta eraikin publikoak

Barakaldoko Udalak Sinvisa enpresari emon deutso he-rriko ikastetxe eta eraikin publikoak garbitzeko ardura. Urte birako akordioa lortu dabe, eta urteko 108 milioi pezeta ordainduko deutsoz Udalak.

BILBO

Nagusientzako aratusteak, BBK-k gertatuta

Gaur eta bihar, eguerditik aurrera, nagusientzako ara-tuste jai berezia egingo dabe Euskal Etxean, Deustuan, BBKko Gizarte Ekintza sai-lak antolatuta.

Izaskun Basterretxea | BILBO

Aterpetheen helburu na-gusia gazteei astialdiaz gozatzen laguntzea da; eta, horretarako, lo egiteko eta jateko lekuak eskaintzeaz gane-ra, kirol instalazinoak, bedar-tzak edo jardueretarako egita-rauak be badaukiez, besteak beste.

Foru Aldundiak *Bizkaiko Aterpetheen Lehen Gida* kaleratu dau, eta erakundeak ofizialki aterpetxetzat daukazan 25 egoitzen barri emoten dau. Al-boko taulan ikusi daitekean mo-duan, hainbat eskualdetan da-goiz banatuta. Bost kostaldean dagoz, eta beste hogeia b bar-rualdean. Hogeita bost aterpe-txeok 1.800 lagunentik gora hartzeko lekua daukie.

Aldundiaren gida eten barik barritu eta eguneratuko dabe, gazteek atxerpetxeak non da-gozan eta zelako zerbitzuak es-kaintzen dituen jakin deien. Ho-rretarako, aterpetxe bakotzeko fitxa bat gertatu dabe; eta halan, errez-errez, informazino asko lortu daiteke. Ezaugarriei erre-paratu ezkerro, jakin leiteke, esaterako, aterpetxe bi izan ezean, beste guztiak urte osoan dagozala zabalik. Izan be, On-darroako Egunsentia eta Zea-nuriko Zulaibar aterpetxeak udako hilebeteetan baino ez di-tue zabaltzen.

Hasteko, gidaren 2.000 ale kaleratuko ditue; Spainian eta

Bizkaiko aterpetxeak

GIDA. Foru Aldundiak ‘Bizkaiko Aterpetheen Lehen Gida’ kaleratu dau, eta 2.000 ale bananduko ditu

25 ATERPETXE

IZENA	HERRIA	OHE KOPURUA
Baratz Baserri Eskola	Gautegiz-Arteaga	140
Orduñako aterpetxea	Urduña	92
Zornotzako aterpetxea	Zornotza	64
Plentziako Egoitza	Plentzia	120
La Arboleda aterpetxea	Trapagaran	56
Gorlizko aterpetxea	Gorliz	54
Izurtzako aterpetxea	Izurtza	36
Arrigorri aterpetxea	Ondarroa	50
Olakueta aterpetxea	Berriz	68
Egunsentia Irakaskuntza Koop.	Ondarroa	40
Lurraska Ingurugiro Zentroa	Ajangiz	130
Bilbao aterpetxea	Bilbo	142
El Peñueco aterpetxea	Balmaseda	16
Ziortzabeltia aterpetxea	Markiña-Xemein	48
La Estacion	Artzentales	33
Zulaibar aterpetxea	Zeanuri	75
Abegia Egoitza	Areatza	49
Iturralde aterpetxea	Atxondo	67
Begoñako Andra Mari Eliza Zentroa	Bilbo	77
Erandioko Udal aterpetxea	Erandio	54
Olalde aterpetxea	Ubide	28
Elantxobe aterpetxea	Elantxobe	24
Urondoko aterpetxea	Gatika	40
Alderdi Etxea aterpetxea	Arteaga	250
Cotorroko aterpetxea	Gallarta	42

Hego Euskal Herrian, gazteen informazinorako egoitzetan. Eta Bizkaian, eskoletan eta uda-letxeetan be banatuko ditue. Hemendik gitxira, Aldundiaren web orrialdean be agertuko da.

Nazioarteko sarean

Dana dala, urte gitxian, foru aterpetxe guztiak nazioarteko sarean sartu gura ditu Aldun-diak. Holan, gazteen nazioarte-ko turismoaren zirkuitoetan egongo diralako, eta atzerrian hurragotik ezagutuko dabelako Bizkaia. Ganera, beste herrialde batzuetako gazteen joan-eto-rriri esker, kulturen artean be mugimendua sortuko litzakela-ko. Horretarako lehenengo pausoa emon dabe. Izan be, Gazteri Zerbitzua 1999an hasi zan nazioarteko ikasle, gazte eta aterpetxeetako txartelak egiten.

Aldundiaren helburua gazte-ei holako instalazinoak modu errezean lagatzea danez, plaza bakotxaren kostuaren zati han-dia foru erakundeak berak or-daintzen dau, sarritan. Bizkaiko gazte aterpetheen zale diranek, esate baterako, aurtten, egune-ko 660 pezeta ordaindu behar-ko ditue lo egiteko eta zerbitzu osagarriak erabilteko, eta 2.000 pezeta lo egiteko lekua eta pen-tsino osoa izateko.

Aldundiko Kultura sailaren eritxiz, Bizkaiko aterpetheen sarea «kalitate handikoa» da, eta «zerbitzu eskaintza zabala».

AGENDA

SESTAO

Berbaldia: Gaia: *Bai Euskal Herriari*. Udal Liburutegian. Gaur izango da, 19:30ean.

BARAKALDO

Zinema: *South Park*. Gaur, 20:00etan eta 22:30ean, Barakaldo Antzokian.

BASAURI

Zinema: *Plenilunio*. Social Antzokian, 20:00etan eta 22:30ean. Bihar.

BILBO

Zinema: *Un Dimanche a la campagne*. Multicines aretoan, 17:30ean, 20:00etan eta 22:30ean.

Antzerkia: *Divorciadas, evangélicas y vegetarianas*. Bilborock aretoan, Profetas del Mueble Bar taldearen eskutik, 20:00etan. Gaur.

Musika: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Euskalduna Jauregian, 20:00etan. Gaur.

Musika: Txapelpunk, MCD. Kafe Antzokian, 21:00etan. Gaur.

Musika: Raimundo Amador. Rock Star aretoan. Gaur izango da, 21:00etatik aurrera.



ATERPETXEAK. Bizkaiko 25 aterpetxeren ganeko informazino zabala agertzen da Aldundiaren gidan.